

*Euskaltegietaiko ikasleei zein
mintzakideei zuzendutako*

*nanoipuin
lehiaketa 2016*



Lehena

Lehiaketa honetan **euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak** har dezake parte, baita eremu bereko Mintzakide programako parte-hartzaileek ere.

Bigarrena

3 maila ditu lehiaketak:

- **1. mailan** A1 eta A2 mailetako ikasleek har dezakete parte.
- **2. mailan**, berriz, B1 mailako ikasleek.
- **3. maila** B2 eta C1 mailetako ikasleendako da. **Mintzakide** programako parte-hartzaileek duten **ezagutzaren pareko mailan** hartuko dute parte. Horretarako propio azaldu beharko dute.

Hirugarrena

Lanak **banaka** egingo dira, eta egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. Nanoipuin bakoitzak **150 hitz** izango ditu, gehienez.

Laugarrena

Lehiaketak aurrera egiteko **gutxienez 10 lan** aurkeztu beharko dira; bestela, bertan behera geldituko da.

Bosgarrena

Lanak **euskara hutsean** idatziko dira eta argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabeak izanen dira.

Seigarrena

Indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo beste-lako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko.

Zazpigarrena

Sakanari buruzko erreferentziaren bat sartzeari ezinbestekoa da (tokiak, gertakari historikoak...).

Oinarriak

Nanoipuinak 2016

Zortzigarrena

Nanoipuin bakoitzaren **bi kopia** aurkeztuko dira lehiaketara. **Lana gutun-azal itxi baten barruan** sarturik aurkeztuko da **izengoiti** batez sinatua. Gutun-azalaren barruan beste gutun-azal itxi bat sartuko da. Bertan **egileak bere datuak eman** beharko ditu: izen-abizenak, telefonoa, helbidea, e-posta eta ikasketa-maila. Lanak Internet bidez bidal daitezke ere **euskara1@sakana-mank.eus** helbidera. Posta elektronikoz bidaliz gero, **pdf** formatuan egon behar dute eta datu guztiak beste dokumentu batean bidaliko dira.

Bederatzigarrena

Sakanako Mankomunitateak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da.

Hamargarrena

Lanak **martxoaren 18ra** arte aurkez daitezke Itsasi euskaltegian edota Sakanako Mankomunitatean.

Hamaikagarrena

Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta lanek ez badute behar bezalako merezimendurik. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahalko dira lan batzuen artean.

Hamabigarrena

Aurkeztutako lanak Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira. Mankomunitateak lanak argitaratzeko aukera gordeko du.

Hamahirugarrena

Maila bakoitzeko **saridunek liburu** sorta bat jasoko dute.

Hamalaugarrena

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berarekin.



*Bihotz
handietarako
ipuin
txikiak*